

Galdera

Zein da egokia?

- a) Sarrera zoragarria Itxaso Artetxe, "Muki", artistak egun berezi honi eman diona.
- b) Sarrera zoragarria Itxaso Artetxek, "Muki", artistak egun berezi honi eman diona.

Erantzuna

Sarrera zoragarria Itxaso Artetxe "Muki" artistak egun berezi honi eman diona

a/ Hiru terminotako aposizioa dugu hemen: IZEN BEREZIA + IZENGOITIA + IZENA (lanbidea), hirurak **izen sintagma berberaren barneko** izenak.

b/ Izen berezia eta izengoitia elkarren ondoan doaz, inolako deklinabide markarik gabe eta komarik gabe:

Indalezio Bizkarrondo «Bilintx»

Nikolas Ormaetxea «Orixe»

Oihana Bernaola «Txikilina»

[Euskara Batuaren Eskuliburuak](#) 474. orrialdean dioskunez, ezizena izenarekin batera idazten denean, komatxo artean edo letra etzanean idatzi behar da izenaren zati ez dela nabarmentzeko:

Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi" = Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*

c/ Ondoren, beste izen bat –eta ez beste izen sintagma bat– gaineratu nahi diogu izen "berezi" horri. Euskaltzaindiaren [109. arauak](#) azaltzen duenez:

1. Aposizioa izen sintagmaren barneko izenen artean egiten denean ez da komunztadura arazorik sortzen, **hondarkia ez baita sintagma osoaren azken buruan baizik ageri:**

- Unibertsitateko Errektoreorde Edurne Mendiluzek aurkeztu du txostena.
- **Edurne Mendiluze Unibertsitateko Errektoreordeari** aurkeztu diote txostena.

Horrelakoetan, bistan da, lehen izenak ez darama mugatzailerik:

- Unibertsitateko Errektoreorde(*a) Edurne Mendiluzek aurkeztu du txostena.
- **Zure lagun(*a) Dublinen bizi denari** sari bat eman diote.

Mugatzailea izenaren beraren osagai egina duten izen bereziek, ordea –Antso Azkarra edo Fernando Amezketarra bezalakoek, alegia–, gorde egiten dute hura aposizioan ere:

- Antso Azkarra errege ausartari (*Antso Azkar errege ausartari).
- **Pernando Amezketarra bertsolari ezagunaren** ibilerak (*Pernando Amezketar bertsolari ezagunaren ibilerak).

Adibideetan ikusiko duzunez, deklinabide-marka sintagmaren amaieran baizik ez da jartzen. Beraz:

Jose Manuel Lujanbio «Txirrita» bertsolariaren umore zolia...

Nikolas Ormaetxea «Orixe» idazlearekin...

Lola Flores “Faraona” kantariarengatik...

Itxaso Artetxe “Muki” artistak...

d/ Aposizioaz gehiago jakin nahi baduzu, eman dizkizugun esteketan ez ezik hauetan ere begiratu dezakezu:

EUSKALTZAINDIA. *“Aposizioak: Axularrek, nafar idazle finak / *Axularrek, nafar idazle fina”, Jagonet galde-erantzunak.*

— *“Aposizioak: ziurtagirietan”, Jagonet galde-erantzunak.*

PETRIRENA, Patxi (2011). *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*. Gasteiz: Ikasmaterialen Aholku Batzordea (EIMA)-Eusko Jaurlaritza (195-196).

EHUko Euskara Zerbitzua (2013). *“Aposizioa”, Ehulkuren aholku guztiak*